

## steilas-ek ez du babestuko zorra ordaintzeko sinatu berri duten akordioa

Atzo, azaroaren 24an, Irakaskuntza Pribatuetako Idazkaritzak deituta bildu zen **steilas**-ek Gizarte Ekimeneko sektorean duen ordezkari sindikalen batzarra. Bileraren helburua zen joan den astean patronalek eta ELAk, CCOOk eta LABek sinatu zuten zorraren inguruko akordioa aztertzea eta sindikatuaren jarrera finkatzea.

Ordezkariek Idazkaritzaren proposamena berea egin zuten eta Akordio horrek ez du **steilas**-en sinaduraren babesa. Laburbilduz, hona hemen gure arrazoiak:

- Eztabaidaren gakoa *demasia negatiboaren* kontzeptua da. Horrela, 2016ko kalkuluekin arazorik ez badugu ere (ikastetxeetara heltzen den gainontzeko finantziazio osoa zorraren zati bat ordaintzeko erabiltzea) hurrengo urteetan erabiliko diren irizpideekin ez gaude ados. Izan ere, lansarien zorraren gaineratik ikastetxearen defizit estrukturalari aurre egitea lehenesten da eta horren ondorioz, akordio "*de minimos*" bihurtu da: Ikastetxeek finantziazioan duten defizita artatuko dute lehenik eta soberakinak dira zorra ordaintzera bideratzen direnak, ondoren. Akordioa *Kristau Eskolak* egin duen irakurketaren arabera da.
- Lanbide Heziketarako proposatzen den formulak, marko orokorra hobetzen badu ere ez du ahalbideratuko langile horiek kantitate duinak kobratzea, finantziazioa publikoa hobetzen ez den bitartean. Guretzat, akordio diskriminatzailea da eta gerta daiteke langile gehienok hiru-lau urteetan zorra bere osotasunean kobratzea, hainbat ikastetxeko langileek zorraren heren bat ere eskuratu gabe.
- Esparru honetan, gure ustez, ahalegin bat egin zitekeen konponbide justuagoa lortzeko bidean. Gure proposamena izan zen ikastetxe hauetan finantziazioa hobetzen ez zen bitartean, 2016rako aplikatu diren irizpideak gordetzea eta ikastetxeetara doan gainontzeko finantziazioa (oso eskasa bazen ere) justiziagatik zorra ordaintzera bideratu. Are gehiago diru apur horiek ikastetxeek bizi dute egoera ekonomiko hobetzen ez dutenean.

- Ildo beretik, ikastetxe hauen kasuan zorra ordaintzeko aipatzen den gehienezko epeak (hiru urte finantziazioa eta hitzarmeneko lansarien taulak berdintzen direnetik) ez du inolako eraginkortasunik, mugagabea delako. Askotan esan denaren kontra, finantziazio publikoa lortzeari lotzen dugu gure eskubideak eskuratzea.
- 
- Ulertzen dugu batzuk guk egindako lanaz baliatzea azkenean langileentzat onuragarria delakoan. Itsusia da oso, bereak ez diren dominak jarri nahi izatea. Langileek jakin behar dute **steilas** izan dela uztailean batzuk sinatu nahi zuten akordioa hobetzeko urrats zehatzak egin dituenak. Geuk gelditu genuen sinadura une hartan eta gureak izan dira Batzorde Paritarioan demasia negatiboen inguruan egin diren proposamenak. Beraz, neurri handi batean, geureak dira, ez beste inorenak, Lanbide Heziketarako eskuratu diren hobekuntzak.

Bestaldetik, arrazoiak badaude ere **steilas**-ek ez du auzitara eramango adostu den akordioa eta ez du oztopatuko bera gauzatzea. Are gehiago: orain arte egin dugun bezala lanean jarraituko dugu -hemendik aurrera ikastetxeetatik-prozesua beharrezko gardentasunarekin egin dadin. Gure ordezkariak ez du ontzat emango enpresek justifikatzen ez duten inongo kantitaterik eta edozein zalantzarekin bere ikastetxeko prozesua geldiarazi eta Batzorde Paritariora bidaltzeko agindua dute.

Azkenik, ulertzen dugu sinatutakoa jendeari saldu beharra edota etapa hau itxi nahi izatea beste kontu garrantzitsuetara jotzeko. Baina objetibotasunetik langileak ez engainatzea eskatu nahi dugu. Lortutakoa ez da dantzan jartzeko modua eta akordioa eskasa, diskriminatzailea eta denbora aldetik mugagabea da. Gainera, bere garaian esan genuen bezala negoziazio kolektiboa baldintzatuko digu erabat.

**steilas**-ek akordioa sinatu ez badu ere inork ezin izango du esan ez dugula lanik egin. Lan eskerga egin dugu Akordioa hobetze aldera eta azkeneko emaitzetan islatu da lan hori, azken emaitza hori eskasa bada ere. Bitartean, batzuk sinatu besterik ez dute egin.

Hemendik aurrera askotariko erronkak ditugu (hitzarmen berria, 58 urtekoen kontua, txanda kontratuak...) eta, beraz, lan handia aurrean. Patronalek eta ELAK alde biko negoziazioak burutzeko duten joeraren aurrean erne egongo gara. Ohi denez zintzo eta leialtasunez jokatu dugu eta -gertatutakoaren gaintik- elkarlanerako prest izango gara beste sindikatuekin. Akordioak hobetzeko ekarpen baliagarriak egiten saiatuko gara, orain arte bezala . Horixe baita gure bokazioa eta konpromisoa.



[www.steilas.eu](http://www.steilas.eu)

Araba ☎ 945 14 11 04  
araba@steilas.eu

Bizkaia ☎ 944 10 02 98  
bizkaia@steilas.eu

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00  
gipuzkoa@steilas.eu

Nafarroa ☎ 948 21 23 55  
nafarroa@steilas.eu